



Usurbilgo Udala

## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO OTSAILAREN 9AN GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ez dira bertaratu:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

Beñat Larrañaga zinegotziak telematikoki hartu du parte batzarrean.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/01/25.**

Batzarkideek 2021eko urtarrilaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- JOSE MARIA UCIN, S.A. ENPRESAK OSINALDE INDUSTRIALDEAN DUEN PROFILEN ETA ALUMINIOZKO TUTUEN FABRIKAZIO JARDUERAREN UDAL BAIMENA EGUNERATZEA.**

Espediente Zenbakia: HZ.07/2012-0401

Europako Batzordeak, 2016ko ekainaren 13an, metal ez-ferrosoen industrietarako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera eskuragarri dauden teknika onenei (Teo) buruzko ondorioak ezartzen dituen **(UE) 2016/1032** Exekuzio Erabakia eman zuen.

Abenduaren 16ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartu zen kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legeko 24. artikulua arabera, 4 urteko epean, eskumena duen administrazioak (Eusko Jaurlaritzak), teknologia hobereenen ondorioak argitaratu ostean, ingurumen baimen bateratuak baldintza horiek eguneratu direla ziurtatu beharra izango du. Erabaki honen eraginpean dago JOSE MARIA UCIN, S.A. enpresaren jardura ere.

Gauzak horrela, JOSE MARI UCIN, S.A. enpresak 2020ko ekainaren 26an egindako eskaeri erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2020ko ekainaren 29an, Ingurumen Baimen Bateratua berritu zion JOSE MARIA UCIN, S.A. enpresari, Europako Batzordeak, 2016ko ekainaren 13an, metal ez-ferrosoen industrietarako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera eskuragarri dauden teknika onenei (Teo) buruzko ondorioak ezartzen dituen (UE) 2016/1032



Usurbilgo Udala

Exekuzio Erabakia betetze aldera.

Bestalde, 2020ko urriaren 27an, JOSE MARI UCIN, S.A. enpresak, instalazioen modernizazioa errendimendua hobetzeko eta aluminiozko bobinen suberaketa homogeneoaren kalitatea hobetzeko, suberaketa-labe berri bat (HR5) instalatzeko asmoa jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2020ko azaroaren 9an emandako Ebazpenenak, suberaketa-labe berriaren (HR5) ezartzea instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jotzea erabaki zuen eta Ingurumen Baimen Bateratua eguneratu zion JOSE MARI UCIN, S.A. enpresari.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak Ingurumen Baimen Bateratua 2020ko ekainaren 29an eta 2020ko azaroaren 9an eguneratu duela, eta ingurumen eta jardueraren kontrola bateratzeko asmoz, beharrezkoa da jarduera lizentzia eguneratzea.

### AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko martxoaren 25ean, zera erabaki zuen:

**LEHENA:** JOSE MARIA UCIN, S.A. enpresak Osinalde industrialdean duen profilen eta aluminiozko tutuen fabrikazio jardueraren udal baimena eguneratzea eta ematea, ondorengo baldintzapean:

- Ingurumen Sailburuordeak, 2013ko urriaren 24an emandako Ingurumen Baimen Bateratuan jasotako baldintzak zein 2013ko abenduaren 23an emandako zuzenketak beteko dira ezinbestean.
- Aurrekoaz gain Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak bere txostenean zehaztutako baldintzak ere beteko dira ezinbestean.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari ematea.

### JARDUERAREN UDAL BAIMENA EGUNERATZEA


Gaia aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2021eko urtarrilaren 22an honako txostena eman du:

#### **Udal Teknikariak Alkate jaunari JARDUERA LIZENTZIA**

---

GAIA: Jose María Ucin, S.A.-ren jarduera lizentziaren eguneraketa  
KOKAPENA; Ugaldea 18, Usurbil.  
UDAL TEKNIKARIA; Ibon Goikoetxea Retegi  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2012-401

---



Usurbilgo Udala


## AURREKARIAK

- 1971-02-08an jarduera baimena lortzen du, Ugaldeako “aluminio estrusioa” jarduerarako. (ez du irekiera baimenik lortzen). Espediente zenbakia 67 da , Sig 246-23.
- 1982an jarduera lizentzia tramitatzen hasten dira, baina, eten egiten da. Espediente zenbakia 153 da, Sig. 0172-07.
- 1986-06-14an jarduera baimena lortzen du (irekiera baimenik ez), Osinalden aluminioaren eraldaketa jarduerarako. 1988-03-08an udalak jarduera-baimena urtebetez luzatu zion, irekiera baimena lortzeko zein baldintza bete behar zituen aipatuz. Hor amaitzen da tramitazioa. Espediente zenbakia 160 da, Sig 0173.
- 2010eko otsailaren 11an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ebazpenaren bitartez Jose María Ucin S.A.-k jarduerari dagokion Ingurumen Baimen Bateratua (aurrerantzean IBB) izapidetu zuen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2010eko apirilaren 30eko ebazpenean jaso bezala. Ebazpenaren 2. atalean jarduerari ezarritako baldintzak zehazten dira.
- 2013ko martxoak 26an Usurbilgo Udalak, Jose María Ucin S.A.-ren jarduera lizentzia eguneratzen du.
- 2013ko urriak 24ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren ebazpenean, Jose María Ucin S.A. enpresak Usurbilgo udalerrian duen profilak eta aluminiozko tutuak fabrikatzeko duen ingurumen baimen bateratua aldatu du.
- 2013ko abenduak 23an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, 2013ko urriak 24an ebatzitako baimeneko akats zuzenketak egiten ditu.
- 2014ko urtarrilak 14ean Jose María Ucin S.A.-k berraztertze errekurtsua tartekatzen du.
- Geroztik, hainbat aldaketa ez esanguratsu izan ditu J.M. Ucin-en ingurumen baimen bateratuak.
- Europar batzordek, 2016/1032, teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak argitaratzen dituen exekuzio erabakia.
- 2020ko ekainak 29an Eusko Jauraritzak, ingurumen baimen bateratuaren aldaketa ez esanguratsua eta eguneratzea igortzen du.
- 2020ko azaroak 9an , Eusko Jaurlaritzak, ingurumen baimen bateratuaren aldaketa ez esanguratsu berria jakinarazten dio Usur Usurbilgo Udalari.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzak ingurumen baimen bateratua eguneratu duela, eta ingurumen eta jardueraren kontrola bateratzeko asmoz, beharrezkoa da jarduera lizentzia eguneratzea.

## ARAUDI APLIKAGARRIA

- Behin betiko onespena duten Udal Arau Subsidiarioak.



Usurbilgo Udala

- 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa.
- 5/2013 Legea, aurrekoa aldatzen duena, Europar Batasuneko 2010/75/UE zuzentarauak eragindako aldaketak kontuan hartuz.
- E.D. 815/2013 Emisio industrialen erreglamendua eta 16/2002 legearen garapeneko.
- 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. III Atalburua. Sailkatutako jarduerak eta IV Atalburua zigorrak.
- Europar Batasuneko 333/2011 Arautegia, 2008/98/CE zuzentarauak agindutakoa arautzen duena, eta, zehazki, aluminioa ekoizteko erabilitako txatarraren kalitatea bermatzeko neurriak ezartzen diren.
- Europar batzordek, 2016/1032, teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak argitaratzen dituen exekuzio erabakia.

## AZTERKETA ETA PROPOSAMENA


2020ko ekainak 29ko eta azaroak 9ko ingurumen baimen bateratuaren aldaketak kontutan hartuta, Usurbilgo Udalak, jarduera lizentzia, ofizioz, aldatzeko ALDEKO txostena igortzen du.

Udal jarduera lizentziak, 2020ko ekainak 29ko eta azaroak 9ko baimen bateratuko baldintza berdinak ezarriko ditu, eta horretaz gain, aire emisioei dagokion eta jardueraren jarraipenari dagozkion hurrengo baldintzak ezartzea proposatzen da. Beti ere, 2016/1032, teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak argitaratzen dituen exekuzio erabakian oinarrituz.

### 1. Aire emisioei dagokionez.

1.1.Emisioei dagokionez hurrengo emisio iturri konfinatuak identifikatzen dira:

Foko zbk.	Foko kodea	Fokoaren izena	Altuera	Barne diametroa	UTM koordinadak	
1D	20004454-01D	Labe fusore eta galdeketa labearen by-pass	12	0,9	576647	4792126
2	20004454-02	Plaken labe berria	6	0,57	576620	4792039
5D	20004454-05D	Tren hotza zaharra	13	0,6	576657	4792103
6	20004454-06	Tren hotza berria	13	0,6	576562	4792100
9	20004454-09	Cyren Suberaketa labea	10	0,25	576611	4792091



Usurbilgo Udala

10	20004454-10	Born suberaketa labea	8	0,25	576646	4792101
11	20004454-11	Diatomea filtroak	4	0,35	576601	4792116
12	2000445412	Labe fusore berria eta galdaketa labea	18	1,5	576549	4792102
13	2000445413	Tren beroa	13	0,41 baliokide	-	-
14	2000445414	Ferrocal suberaketa labea	8	0,25	-	-
15	20004454-15	HR5 labea	8	0,25	-	-

1.2. Identifikatutako foko konfinatuetako emisio mugak hurrengoak izango dira.

2020ko azaroak 9ko ebazpenean II. Eranskinean ezarritako berdinak 12. fokuan izan ezik, non hurrengo emisio mugak ezartzea proposatzen den.

Foko zbk.	Fokoa	Sustantzia	Neurketa met.	Emisio muga	Maiztasuna
12	Labe fusorea + galda	Nox (NO <sub>2</sub> )	UNE-EN 14792	615 mg/Nm <sup>3</sup>	Etengabe
		HCL	UNE-EN 1911	10 mg/Nm <sup>3</sup>	Etengabe
		COVT	UNE-EN 12619	30 mgC/Nm <sup>3</sup>	Etengabe
		Merkurioa eta konposatuak Hg-tan adierazita		0,05 mg/Nm <sup>3</sup>	Etengabe

Aipatu mugak, metal ez ferrosoen industriarako ekoizpenen Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) ezartzen dituen balore eta maiztasunetan oinarritzen dira. Jose María Ucin S.A. enpresak neurketa maiztasunak ezingo balitu bete, teknikoki eta ekonomikoko bideraezina dela argudiatu beharko da.

1.3. Sortutako gas guztiak filtratu behar dira atmosferara igorri baino lehen. Sistemaren osagaien bat ez badabil era zuzenean prozesua geratu eta gasen xurgatze eta iragazte sistemaren funtzionamendu zuzena bermatu arte ezingo da labe fusorea abiatu.



Usurbilgo Udala

## 2. Jardueraren jarraipenari dagokionez

Jardueraren inguruko edozein aldaketa edo berririk balego, Eusko Jaurlaritzara igortzen den moduan, Usurbilgo Udalera igorriko da.

Era berean, urtero, martxoak 30a baino lehenago, ingurumen zaintza programa bateratuari dagokion informazio oro aurkeztuko da Eusko Jaurlaritzan eta Usurbilgo Udalari jakinaraziko zaio.

Informazioa aztertuta, Usurbilgo Udalak nahikoa ez dela baderitzo, zuzenean Usurbilgo Udalari aurkeztuko zaio eskatutako informazio gehigarria.

### 2.1. Ikuskaritza ahalmena

Usurbilgo Udalak, Jose María Ucin, S.A. enpresaren jarduera sailkatuaren ikuskapena eta kontrola otsailaren 27ko 3/1998 legeak, edo hau ordezkatzeko duen legeak, arautuaren arabera egingo du.

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako, adierazten zaizuna.

Ibon Goikoetxea Retegi  
Ingurumen eta Nekazaritza Teknikaria

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENA:** JOSE MARIA UCIN, S.A. enpresak Osinalde industrialdean duen profilen eta aluminiozko tutuen fabrikazio jardueraren udal baimena eguneratzea, ondorengo baldintzapean:

- Ingurumen Sailburuordeak, 2020ko ekainaren 29an eta 2020ko azaroaren 9an emandako Ebazpenen baitan berritutako Ingurumen Baimen Bateratuan jasotako baldintzak beteko dira ezinbestean.
- Aurrekoaz gain Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak bere txostenean zehaztutako baldintzak ere beteko dira ezinbestean.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei ematea.



Usurbilgo Udala

### 3.- ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 8 ETXEAN IGOGAILUA ORDEZKATU ETA IRISGARRITASUN BALDINTZAK HOBETZEKO OBRAK BURUTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0466

ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen JUAN KORTA ETXEBERRIA jaunak, Atxegaldeko Erdiko kalea 8 etxean igogailua ordezkatu eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko obrak burutzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 28.292,46 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 107,96 € Fidantza (%120): 129,55 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andreak, 2021eko otsailaren 2an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** ERDIKO KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen JUAN KORTA ETXEBERRIA jaunari, Atxegaldeko Erdiko kalea 8 etxean igogailua ordezkatu eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko obrak burutzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
  - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 107,96 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (129,55 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**129,55 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza*:"



Usurbilgo Udala

*HZ.04/2020-0467* jarriaz kontzeptuan.

- Ignacio Granja Echeverria arkitektoak 2020ko azaroan (EHAEO 2020-11-23) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Behe solairua. Aurkeztutako aukeren artean bigarren aukera egikaritu beharko da, **portalean arrapalarik gabekoa**.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- Edonola, indarrean dagoen eta aplikagarria den araudia bete beharko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diotenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
  - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
  - Obra amaierako argazkiak.
  - Ilogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:





Usurbilgo Udala

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

#### 4.- MUNALURRA KALEA 4 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0469

MUNALURRA KALEA 4 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkarietan diharduen LUKA ARANGUREN ECHEVERRIA jaunak, Munalurra kalea 4 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 172.488,64 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.687,85 € Fidantza (%120): 2.025,42 €


Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andreak, 2021eko urtarrilaren 22an ALDEKO txostena eman du.

Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2021eko urtarrilaren 25ean emandako 2021/060 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 4 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI, Munalurra kalea 4 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 21,67 m<sup>2</sup>-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2021eko urtarrilaren 26an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Usurbilgo Udala



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** MUNALURRA KALEA 4 ETXeko JABEKIDEEEN ELKARTEAREN ordezkartzan diharduen LUKA ARANGUREN ECHEVERRIA jaunari, Munalurra kalea 4 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
  - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.687,85 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.025,42 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.  
**2.025,42 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2020-0469*" jarriaz kontzeptuan.
  - Obrak hasi aurretik okupatuko den lurzoruan egun azpiegiturarik badagoen ziurtatu beharko da Udaleko Zerbitzu Sailarekin.
- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal



Usurbilgo Udala

aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.

- Iñigo Unanue Uranga arkitektoak 2020ko urrian (EHAE0 2020-12-02) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA. Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 21,67 m<sup>2</sup>-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoen bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA. Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioen bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarrizko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu, eta bereziki ondokoak:
  - Sarrerako atearen 2 aldeetan gutxienez 1,4m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.
  - Igogailuaren sarreraren aurrean 1,5 m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.
  - Igogailuaren kabinak gutxienez 1,00 m x 1,25 m-ko neurriak.
  - Igogailuaren ateak 0,80 m-ko pasabide librea.
  - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira eta eskaileran EKT betetzen duten eskubarandak jarri beharko dira.



Usurbilgo Udala

- Edonola, igogailuak etxebizitza guztiei eman beharko die zerbitzu eta beraz, etxebizitzak kokatzen diren solairu guztietara heldu beharko du.
  - Materiale, kolore eta itxurari dagokionean, inguruko portaletan orainartean egikaritu diren eskuhartzeen antzera bete beharko da.
  - Eskailerak zeuden lekuan lokal berria. Ohartarazten da lokal horrek ezingo duela inolaz ere erabilera/titulartasun pribatibo partikularra izan, izan ere, emakida Munalurra 4ko jabekideei egingo zaie, egitekotan. Ezinbestean bete beharko da baldintza hau. Lokal berriak sarbide ematen dio lokala pribatu partikularra bada, lokal berriak duen sarbide-ate hori kendu egin beharko da (beste lokalera ematen duen atea).
  - Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
    - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
    - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
    - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
  - **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
  - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
    - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
    - Obra amaierako argazkiak.
    - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
  - Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.



Usurbilgo Udala

- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenez baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

## 5.- 2020KO KULTURAKO DIRULAGUNTZEN ZURIKETA.

### Espedienteak:

Jexux Artze Kultur Elkarte (KE.01/2020-0017)  
Juan Luis Atxega. Organoaren Lagunak (KE.01/2020-0018)  
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (KE.01/2020-0019)  
San Praixku Guraso Elkarte (KE.01/2020-0021)  
Jexux Agirresarobe Arzallus (Nafartarrak) (KE.01/2020-0022)  
Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso Elkarte (KE.01/2020-0023)  
Bidean Agiñarron Herri Elkarte (KE.01/2020-0024)  
Einean guraso Eskola (KE.01/2020-0025)  
Maria Dolores Maiz Belastegui (Irri Abesbatza) (KE.01/2020-0026)  
Maria Esther Ibaruren Arrillaga (Usurbilgo Euskal Kantu Taldea) (KE.01/2020-0027)  
Noaua!(KE.01/2020-0028)  
Antxomolantxa (KE.01/2020-0029)  
Orbeldi Dantza Taldea (KE.01/2020-0031)  
Gipuzkoako Bertsozale Elkarte (KE.01/2020-0032)  
Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.KE.01/2020-0033)  
Euskaraz Koop. Elkarte (Aek) (KE.01/2020-0034)  
Santuenea Kultur Elkarte (KE.01/2020-0035)  
Ziortza Gazte Elkarte (KE.01/2020-0036)  
Zubigune Fundazioa (KE.01/2020-0038)

### IKUSIRIK


2020ko urtarrilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko irailaren 19an egindako bilkuran, 2020eko kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, talde hauek ekintzak antolatzeko emandako dirulaguntza justifikatu dute:

### ETA KONTUAN HARTURIK

Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.  
Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).



Usurbilgo Udala

2020 kultur egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2020/01/07).  
Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 2020/01/20).  
Kontu hartzailearen ziurtagiria  
Kultura Teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:


## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Honako eskatzaileei kultura arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordaintzekoa
Jexux Artze Kultur Elkartea (Zb.17)	2	880,25 €
Zubietako Eskolako Guraso Elkartea (Zb.19)	10,11	43,75 €
Noaua! (zb. 28)	39,40,41,42	3.165,84 €
Gipuzkoako Bertso zale elkartea (zb.32)	57	117,32 €
Euskaaz Koop. E (zb.34)	62	197,13 €
Santuenea Kultur Elkartea (Zb.35)	63,64,65,66	361,25 €
Ziortza Gazte Elkartea (Zb.36)	69,70,71,72	41,41 €
	<b>Guztira</b>	<b>4.806,95 €</b>

**Bigarrena:** Eskatzaile hauek Udalari diru-itzulketa egitea:

Eskatzailea	Ekintza	Itzultzekoa
Juan Luis Atxega Pagola (Zb.18)(Organoen Lagunak)	5,6,7	-229,21 €
San Praixku Guraso Elkartea (Zb.21)	13,15,16,18	-4.125,00 €
Jexux Agirresarobe Arzallus (Zb.22) (Nafartarrak)	19, 20	-585,81 €
Hitz Aho edarregi ikastolako gurako Elkartea (Zb.23)	21,22,23,24	-209,25 €
Bidean Agiñarron Herri Elkartea (zb.24)	27,28,29	-1.391,25 €
Eskola- Einean guraso Eskola (zb.25)	30,31,32,33,34	-534,82 €
Maria Dolores Maiz Belastegui (Zb.26) (Irriu Abesbatza)	35	-301,07 €
Maria Esther Iburguren Arrillaga (Zb.27) (Usurbilgo Euskal Kantu Taldea)	36,37	-488,34 €



Usurbilgo Udala

Antxomolantxa (Zb.29)	43,44,45,46,47,48,49	-3.227,63 €
Itzalai Pikabea Atorrasagastia (Zb.30) (Usurbilgo Gure Esku dago)	51,52,53	-626,01 €
Orbeldi Dantza Taldea (Zb.31)	54,55,56	-686,02 €
Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.33)	58,61	-226,99 €
Zubigune Fundazioa (Zb.38)	75,76	-1.950,00 €
	<b>Guztira</b>	<b>-14.581,39 €</b>

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832

EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

**Bigarrena:** Kultura Alorreko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2020 (A 6-2020)

**Hirugarrena:** Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

**Laugarrena:** Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**